

EUSKAL-ERRIA

REVISTA VASCONGADA

T.º LXXIV

SAN SEBASTIÁN 15 DE JUNIO DE 1916

N.º 1154



R. P. CARDAVERAZ

AITA KARDABERAZ

ERNANI'ko uri leñargian jayo zan euskalzale ospetsu au 1703-ga rren'go Abenduan, ta Boloni'n il zan 1770-garren urteko Urrillaren emezortziyan.

Sermolari bikaña zan, ta bere itzaldi gain gañekuak entzutera urru-tietako errietatik biltzen ziran elizak ezin kabi ala.

Euskalzale sutsua zan, ta euskeraz arrek sortutako otoitz samurrak oraindik ere egiten dira Euskal-erriko leku askotan.

Jesuita jatorra zan bezela, guztiz Jaungoikozkua zan ta animak zeruratzeo pizkor lan egin zuben mota guzietan.

Jesus'en biyotza ganako naitasun sutsua zeukan ta Aita Kardaberaz eta Aita Mendiburu, izan ziran lenengo ekarri zutenak Gipuzkoa'ra Jesus'en biyotza ganako maitetasuna sortzeo eleizgai ta elkartuak.

Oraindik ere, bai Pasayan, ta bai beste erri geyagotan ere Aita Kardaberaz'en denboran egintako antzektak agertzen dira, azaldurik Jesus'en biyotza, ez orain agertzen dan eran, lenagoko egiterata baizik.

Zerutik begira dezayola Aita Kardaberaz'k bere Euskal-erri maitiari.

EUSKAL ERRIA